


FAKULTATEKO KONTSUMOA

Hiruhilekoko Datuak

PAPER (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
33.000 unitate	34.500 unitate	24.500 unitate

Hauxe izan da kontsumoaren orain arteko bilakaera (orri kopuruari dagokionez):



Orri kontsumoari dagokionez, urteko bigarren hiruhilekoa iazkoaren antzekoa izan da: azkeneko, 2015ean baino 6.000 gehiago kontsumitu dira. Apirilean 33.000 orri kontsumitu ziren, hau da, iazko apirilean baino 15.000 orri gehiago. Maiatzean, azterketen garaia denez, handiagoa izan ohi da kontsumoa; aurten, iazko paper kopuru berbera kontsumitu da (34.500 orri). Ekainean, ordea, 2015ean baino 9.000 orri gutxiago kontsumitzea lortu da.

Aurten, oraingoz, 2015ean baino 5.000 orri gutxiago kontsumitu dira: 183.000 denera. Bide onetik goaz, bai, baina ez dugu lortu 2014ko datua berdintzea, orduan 165.500 orri kontsumitu baitziren.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2016ko BIGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	6


Birfabrikatutako 6 kartutxo unitate aldatu dira banako inprimagailuetarako.

ONTZIAK (Fakultatea)

	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
ONTZIAK*	76 kg	65,5 kg	50,5 kg

*Kg = kilogramoak (litro 1 paper = 0,32 kg eta litro 1 plastiko 0,05 kg)

Beheko taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen (kilogramotan) Fakultateko edukiontzi horietako hondakinen (ontziak) bilketak:




Ikus daitekeenez, aurten iaz baino ontzi gutxiago ari gara biltzen. Ekainera bitartean 365,5 kilogramo hondakin bildu dira; iaz, berriz, lehen seihilekoan 472 kilo jaso ziren.

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling SLk, Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetara botatzen den papera biltzeaz arduratzen den enpresak, gure Fakultatean bilduriko kilogramoen zifrak eman dizkigu. Hona hemen azken hiruhilekoan Fakultateko edukiontzi urdinetara botatako kopurua:

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
560 kg	740 kg	440 kg

Grafiko honek Fakultateko edukiontzi urdinetan bildutako kopuruak azken seihilekoan izan duen bilakaera erakusten du:




Maiatza paper kontsumo handieneko hiruhilekoko azken hilabetea da; horrenbestez, maiatzean bildu da birziklatzeko paper gehien, 740 kg guztira. Lehen 6 hilabeteetan 3.160 kg bildu dira guztira Fakultateko edukiontzi urdinetan; alegia, 2015ean baino 180 kg gutxiago.

Uraren kontsumoa: botila vs iturria

Ur ontziratuak hondakin tona ugari sortzen ditu, eta baliabideak alferrik galdu. Alde horretatik, Joserra Diezek, Arantza Ricok eta Iñaki Antig edadek egindako "El consumo de agua embotellada en la UPV/EHU" txostenak hauxe dio: "botilako ura gero eta gehiago kontsumitzen da mundu osoan; ordea, gehienetan nabaritu ere egiten ez diren ondorioak ditu. Esate baterako, baliabideak alferrik galtzen dira merkaturatzeko erabiltzen diren ontzi plastikoen ekoizpenean, garraioan eta, batik bat, helmugan; izan ere, gehientsuenetan, ontziok zabortegetara eta itsasora botatzen dira. Gainera, ur ontziratuak ez du zertan izan iturrikoa baino osasungarriagoa, nahiz eta ontziratuaren kostua askoz ere handiagoa izan". Txostena eskuragarri dago honako esteka honetan:

<http://www.ehu.eus/documents/10136/5652098/El+consumo+de+agua+embotellada+en+la+UPV-EHU>



Lan horrek agerian uzten du Euskadiko iturriko ura kalitate handikoa dela. Lanaren azken helburua da gure unibertsitateko campusetan pixkanaka-pixkanaka botilako ura kontsumitzeari uztea eta unibertsitateko kideak egileen ustez baliabideak xahutzen dituzten jokabide eta jarreraren gainean kontzientziaztea, kontuan hartuta gure unibertsitateak erakunde gisa zenbateko konpromisoa duen gizartearekin.

Beraz, badakizu. edan iturriko ura!

Eta... zer egin dezaket nik udan?

Orain udan gaudenez gero, berriro dakartzagu duelea urtebete kontsumoa aurrezteko eman genituen aholkuak:



Tenperatura 3°C-tik 5era murrizteko, hobe da haizagailua erabiltzea aire girotua baino, askoz ere argindar gutxiago kontsumitzen du eta. Askotan, haizagailua nahikoa izan daiteke konfort egokiari eusteko.

Ez ezazu 20°Ctik jaitsi aire girotuaren termostatoa; izan ere, jaisten den gradu bakoitzeko % 8 areagotzen da argindar kontsumoa. Onena tenperaturari 24°C eta 26°C artean eustea da.

Jar ezazu aire girotua edo haizagailua eguzkiak gutxien jotzen duen etxeiko aldean. Bero egiten duen egunetan piztu ekipoa etxea berotu aurretik, eta leihoak itxita eduki.

Airea girotzeko horrenbesteko beharrik izan ez dezazun, instalatu eguzki oihalak eta saretak eta eduki itzazu jaitsita egun osoan.

Kontsumitu produktu freskoak eta tokikoak, frutak eta barazkiak. Garbi itzazu ontzi batean txorrotaz azpian garbitu ordez: egunean hamar litro ur arte aurreztu ahal izango duzu.

Ahal duzula ez bainatu, dutxatu: horrela, egunean 60 litro ur aurreztu ahal izango dituzu.

Urteko egunik argitsuenak dira; hortaz, aprobeitza ezazu eguneko argia.

Deskonektatu telebista eta kargagailuak. Gailu horien "kontsumo fantasma", ez badira ari erabiltzen, etxeko argindar kontsumoaren % 10ekoa izan daiteke.

Hozkailua 4°C eta 6°C artean eduki, eta izozkailua, berriz, -18°C eta -15°C artean. Utzi janariari hozten hozkailura sartu aurretik.

Datuen iturriak:

- ✂ http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2007/05/13/162594.php
- ✂ <http://ideasana.fundacioneroski.es/web/es/09/medio/>
- ✂ <http://www.mundo-geo.es/green-living/5-consejos-para-ahorrar-energia-en-verano>

Hemen azaldutako ideiaren bat aurrera atera nahi baduzu baina ez badakizu nola, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin, helbide honetara idatzita:

gkz.ekoscan@ehu.eus